



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

UNITATE DIDAKTIKOA
BURDINAREN BIDEAK
INDUSTRIALIZAZIOAREN HASMENTA
EUSKAL HERRIAN

IRAKASLEENTZAKO AZALPENAK



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

IRAKASLEENTZAKO AZALPENAK

Publikoa:

Adin guztietako publikoa.

Taldeak: Gehienez 30 pertsona.

Edukiak:

- Zerain:
 - Herri Museoa
 - Diaporama
 - Aizpeako meategia
- Legazpi:
 - Museo del Hierro Vasco
 - Mirandaola
- Ormaiztegi
 - Zumalakarregi Museoa
 - Ormaiztegiko trenzubia

Iraupena:

- Zerain: 2 ordu eta 30'
- Legazpi: 1 eta 30'
- Ormaiztegi: 1 eta 30'

Prezioa: 6 € pertsonako.

Materiala:

- Lan-fitxa guk ematen dugu.
- Axota edo arkatza ikasleek ekarri behar dute.

Erreserbak:

¡Ez ahaztu alde zuretik erreserba egitea (Tel.: 943 88 99 00)!

Kontsultak eta informazioa:

ZUMALAKARREGI MUSEOA
Muxika egurastokia 6
20216 ORMAIZTEGI
(Gipuzkoa).
Tel.: 943 88 99 00
Faxa.: 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
http://zm.gipuzkoakultura.net

Ordutegia:

Asteazkenetik ostiralera:
10:00 / 14:00 - 16:00 / 19:00.
Larunbat, igande eta jai egunetan:
10:00 / 14:00 - 16:00 / 19:00

UNITATE DIDAKTIKOA

BURDINAREN BIDEAK

INDUSTRIALIZAZIOAREN HASMENTA EUSKAL HERIAN

Zeraingo **Zerain dezagun**, Legazpiko **Lenbur** eta Ormaiztegiko **Zumalakarregi Museoa** ikastetxeen beharrei erantzun bat emateko batu gara. **BURDINAREN BIDEAK Industrializazioaren hasmenta Euskal Herrian** diziplina desberdinak koherenteki biltzen dituen ibilbide atsegina da, partaidetza bultzatzeko eta ikusitakoaz gogoeta egiteko aukera bat.

HELBURUAK:

- **Zentzu kritikoa**, ez baita sinplekeriarik edo erantzun partzialik onartzen.
- **Jakin-mina eta errespetua** historiaren eta honen lekuko den ondarearen aurrean.
- **Ezezko jarrera bortizkeriaren aurrean**. Gudak ongizate ekonomiko, politiko eta sozialaren oztopo dira.

IBILBIDEAREN EDUKIAK

KONTZEPTUZKO EDUKIAK:

Burdina da ibilbide honen gakoa. Ez da halabeharrez aukeratu: burdina gabe ez da Euskal Herriaren historia ulertzen. Eskulangintzaren gainbehera bat dator XIX.eko krisi ekonomiko, sozial eta politiko larriarekin, eta berreskurapena oraintsu arte iritsitako garai baten hasierarekin batera izan zen. Bi karlistaden arteko epea aztertuz, primeran azaltzen zaizkigu joaten ari zen mundua eta segidan zetorkiona.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

Euskaldunak eta burdina

Euskaldunen lur pobre haiek, mendi, baso eta erreka, ogi gutxi ematen zuten, baina beren pobrean gordetzen zuten altxorra: burdina lurra arakatu orduko, ikatz egiteko baso zabalak eta itsasora saltoka jaisten zen ura. Berant Ertaroan uraren indarrak baliatzen ikasirik, burdina asko eta merke saltzen hasi ziren euskaldunak, itsasoz eta lehorrez, Gaztelan, Ipar Europan, Ameriketara. Foruek burdinaren estrakzioa, ekoizpena eta salmenta arautzen zuten: mea gordinaren salmenta galerazi, pieza landuena erraztu, zerga eta aduana gutxi, eta abar.

Burdingintza krisian

Historia ez da geldi egoten, eta XVIII. mendea aurreratu ahala burdingintzak okerrera jo zuen: Ingalaterrako industrializazio hasi berria, aduana eta zerga gehiago, merkatuen galtzea, teknika zaharkituak, ikatz egiteko egur eskasia... XIX. mendeko gerrek (frantsesen kontra, karlistadak) eta liskar politikoek (liberalismoa, absolutismoa, Foruen koloka) ez zuten egoera larritu besterik egin. Banan banan, burdinolak betiko ixten joan ziren.

Karlistadak eta Lehenengo Industrializazioa

Burdingintza tradizionala bukatu arren, industrializazioa piztuko da: Foruak aldatuta, mea esporta daiteke, eta kanpoko harriak ekarri; zergak Diputazioek kontrolatzen dituzte oraindik; aduanak aldatu dira Ebrotik Bidasoara, eta burdingintza industrial berriak, kanpoko lehiakidez babesturik, espainiar merkatuan saltzen du orain. Kanpoko enpresek teknika aurreratuak aplikatzen dituzte, eta trenbidea ezarri. Hau guztia ez zen goizetik arratsera egin, eta problemak bazirela garbi utzi zuen Bigarren Karlistada piztu izanak. Honez geroztik burdina aro berrian zeharo sartu zen, eta euskal ekonomiaren lokomotorea izan da oraintsu arte.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

Zerain baserri giroko herria da. Baserrian oinarritu izan da ekonomia, gizartea eta politika bera ere. Baserria, ordea, ez zen biztanle guztiak mantentzeko gauza, eta askok alde egiten zuten. Baina Zerainek bazuen beste aukera bat: burdinaren ustiakuntza, Ertarotik XX. mendea arte. Aizpeako meategiek Legazpi eta inguruko olak hornitzen zituzten. XIX.ean aldaketa nabarmenak eman ziren: dinamitaz lortutako mea kaltzinazio labeetan urtzen zen; handik teleferikoz Ormaiztegiko geltokiraino eraman; Ormaiztegitik Pasaiako portura, eta bueltan harrikatza ekarri. Ustiakuntza modernoa britainiar eta aleman konpainiek egin zuten. Orain Ertaroko aztarnak eta berriagoak tartekatzen dira: biltegiak, galeriak, minazuloak, bolborategia, ikaztegia, kaltzinazio-labeak eta garraiobideak.

Burdinaren lana **Legazpi**n gutxienez XII. mendeko haizeolekin hasi zen. Uraren indarrak baliatzeko olak haranetara jeistea Berant Ertaroan gertatu zen. Iraultza tekniko honek burdin esportazioaren puntaren puntan jarri zuen Euskal Herri Atlantikoa. Baina Europan garatu ziren teknika berriak berenganatu ez eta euskal burdinolak ixten joan ziren XIX. mendea aurreratu ahala. Bigarren Karlistadaren ondoren, berriz, burdingintza industrialak izan da euskal ekonomiaren motore. Mirandaolak gutxienez XV.etik XIX.a arte funtzionatu zuen. Gure mendearen erdialdean Patrizio Etxeberriak goitik behera zaharberritu zuen: kanala, aldaparoa, tikinoiak, hauspoak, ingude eta gabia... behialako bizimodu baten oroigarri.

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak gure historiaren garai erabakiorra aurkezten du: bizimodu tradizionalaren krisia eta mundu modernoaren sorrera latza. XIX.eko Euskal Herriaren ikuspegi global eta dinamikoak kontuan izan behar ditu ematen ari ziren aldaketak: Aintzin Erregimenetik Liberalismora, baserritik kalera, Foruetatik Estatu bateratzailera, bela eta aberetik baporera, olatik fundizioa... prozesu luze eta korapilotsuak dira, batzuetan oraintsu arte iritsi zaizkigunak. Ormaiztegiko Trenzulia horren guzti horren lekuko eta protagonista da. 1864an eraikia, garaiko obrarik ausartena izan zen. Zubiaren ondoan, burdinbide txiki batek Zeraingo meategiak eta Madril-Irun bidea lotu ezezik, Legazpi ere elkartzen zuenez, Patricio Etxeberria alemanek utzi berri meategiak ustiatzen ahalegindu zen.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

PROZEDIMENTUZKO EDUKINAK:

- **Talde lana:** Bakoitzak bere koadernoan eduki arren, galderak eta erantzunak taldeka egingo dira.
- **Bestelako dokumentazioaren balioa.** Ondare arkeologikoak, dagokion neurrian, testu politiko-juridikoek ez duten informazioa gorde dezake.
- **Denboraren eta espazioaren zentzuaren garapena.** Mapak, maketak, ardatza kronologikoak, ikus-entzunezkoak, maleta didaktikoak eta halako baliabideak erabiltzen ditugu. Euskal burdina atlantikoaren garrantzia ulertarazteko faktore geografikoez, baita industrializazioak jokatu zuen lehen/gero mugarri moduko izaeraz ohartarazi nahi dugu.
- **Bilakabide historikoen ulermena.** Gure kasuan, Aintzineko Erregimenetik Liberalismorako pasabidea azaltzea, aldatzeko eragileak eta hauen aurkako oztopoak ezagutuz, azaleko gertaerak (arazo dinastikoak) funtsezkoetatik (iraultza burgesak) bereiziz. Ikastetxean jasotako ezagupen generikoak ahalik eta hobekien barnera daitezten, hauek ordenatu eta finkatzeko asmoa du koadernoak.
- **Gogoeta iraganari** eta orainari buruz, estrapolazioak eta anakronismoak bazter utzita.

JARRERAZKO EDUKINAK:

- **Zentzu kritikoa,** ez baita sinplekeriarik edo erantzun partzialik onartzen.
- **Jakin-mina eta errespetua historiaren** eta honen lekuko den ondarearen aurrean.
- **Ezezko jarrera bortizkeriaren aurrean.** Gudak ongizate ekonomiko, politiko eta sozialaren oztopo dira.
- **1864ko trenzubia** bertan ikusteak informazioa baino gehiago historia eta honen lekuko den ondarearekiko errespetua bilatzen du.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura


BISITALDIAREN NONDIK NORAKOAK

- Ibilbidea egun osoko bisitaldia bezala planteatzen da. Denbora gehien han behar delako gomendatzen da Zerainen hasia. Taldea oso handia baldin bada (autobus batzuk), harrera gune bi edo hiruetan has daiteke. Nahasketak ekiditearren, bisitaldien ordena erloju orratzena izango da: Zerain / Legazpi / Ormaiztegi.
- Harrera gune bakoitzera iristean, komeni da taldearen arduradunak lehenago sartzea, xehetasunak erosoago argitzeko. Bitartean taldeak kanpoan itxaron behar du.
- Zumalakarregi Museoan, jatorrizko baserriaren egitura errespetatzen denez, taldeak 30 lagunekoak izango dira gehienez. Talde handiagoak izanez gero, banatu egingo dira: talde bat museoan dagoen bitartean besteak trenzua ikusiko du, horrela itxoiteko tartekak dezente murriztuz.
- Taldea sartu orduko, ikasleei fitxa bana emango zaie. Etorri baino lehen bakoitzak bere arkatza edo boligrafoa ekarri behar duela gogoratu behar zaie. Bisitaldiaren ordena alda daiteke taldeen kopuruen arabera, baina, oro har, denek ibilbide bera egingo dute.
- Zerainek, Ormaiztegi eta Legazpi, hiruek dituzte taldeentzako atsedentzako atsedentzakoak, baina beharbada Mirandaolako parkea da aproposena. Gomendutako ordenari jarraikiz, Mirandaolan bazkalorduan bukatzen da. Parke honetan, beste bisitaguneetan bezala, berdeguneak eta pilotalekua izateaz gain, makinaria eta guzti duen lantegi zahar batean kokatutako taberna zabala dago, edariak eta ogitartekoak saltzen dituen. Eguraldi txarra balitz, talde oso bat estaltzeko modukoa da. Arratsaldean Ormaiztegikoa geratuko litzateke. Zumalakarregi Museoa hiruetan zabaltzen denez, ibilaldia lau eta erdiak aldera bukatuko liteke.
- Jakina, edozein iradokizun aditzeko prest gaude: ordutegia, bisitaren ordena, ibilbide barruko lehentasun edo interesak, eta abar.

Z·M**MUSEO
ZUMALAKARREGI
MUSEOA****Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

IBILBIDEAREN PLANOA



NOLA IRITSI

Ibilbidea honako hau da: herriko plazan dagoen **Zeraingo Museotik** (Gi-3520), Aizpea auzoko meategietara; Aizpeatik Mirandaolako Parkera, horretarako Aizpea eta Oñati-Legazpiko (Gi-2630) bidegurutzearen ezkeraldera berrehun bat metro joz. Mirandaolatik berriro bide hori hartu, oraingoan eskuin aldera **Legazpirantz**, hau zeharkatu eta Zumarraga-Urretxu hirigunera iritsi aurreko bidegurutze borobileraino. Honetan Zumarragarantz (Gi -2632), zeharkatu eta Izaga jaitsi Ormaiztegiara, Beasain aldera. **Ormaiztegin**, museoa elizaren eta udaletxearen artean dago. Ormaiztegitik Zerainera joateko (GI-3540) trenzubien azpian pasa eta ezker aldeko bidea hartu (Gi-3572), Liernira, eta handik jaitsita Mutiloara. Mutiloan, Zeraingo bidea hartuko (Gi-3262).